

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 241. alea - 2019ko ekaina

**EH Bilduko  
Gilen Garcia  
da herriko  
alkate berria**





**G**

**JOXEAN GALDONA  
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 2/05/049  
NIVEL 2



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko  
erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

**ZERBITZUAK:**

- \* Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com



**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**Calbeton**

JATETXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPIZKOA) Fax: 943 192 482

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295



**AUKERA  
INMOBILIARIA**

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



API 447

# AURKIBIDEA

4

## GUTUNAK

“Zutabeak sendotzeko unea”, “Itxi da teloia, itzali dira argiak eta bukatu da musika”...

6

## KOLABORAZIOA

“Liburu artean”: Estibaliz Beltran de Heredia liburuzainaren gomendioak

10

## ALBISTEA

“Deba, 1936-1945. Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan”

14

## HAUTESKUNDEAK

Hauteskundeen emaitzak, kargu-hartzeak, alderdien balorazioak...

17

## ELKARRIZKETA

“Haurrekin urteotan sortu den harremanak egiten ditu ezberdin Kolorez Blai udalekuak”

## Euskal Jaia iragartzeko kartel lehiaketa eta haurrentzako ekimena

Urtero bezala, aurten ere hainbat ekimen egingo ditu Zuhatza Euskara Elkartea uda partean.

Batetik, gogorarazi nahi dizuegu abian dagoela datorren Euskal Jairako kartel lehiaketa (ikus aldizkariaren kontrazala). Uztailaren 5ean amaitzen da lanak aurkezteko epea, eta pare bat aste beranduago jarriko dira lan horiek ikusgai erakusketa batean, herritarrek botoen bidez aukeratu dezazuen kartel irabazlea.

**Erakusketa eta herri bozketa uztailaren 18an (osteguna) egingo da**, plaza zaharrean (19:00etatik 21:00etara). Zuen zain egongo gara bertan!

Bestetik, etxeko txikienezako euskarazko aisialdi eskaintza aberastu nahian, **haurrentzako ikuskizun bat izango da uztailaren 23an (asteartea)**, 19:00etan: *“Arima diskofesta”*. Zumardian izango da hitzordua (euria egingo balu, Luzaro eskolako frontoian).

Ez da izango aspertzeko tarterrik uda sasoiari, eta aisialdiaz ere euskaraz gozatzeko mila aukera izango dira herrian. Aipatutako ekimenez gain, gogoratu **Kolorez Blai euskal udalekuak** ere egingo direla beste urte batez. Uztailean 200dik gora haur ibiliko dira batetik bestera, herria alaitu eta koloreztatzen (ikus begirale taldeari egindako elkarrizketa, 17. orrialdean).

*Zuhatza Euskara Elkartea*



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Deba Udal



Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Hizkuntza ardura:** Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzio taldea

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Terese Larrañaga

**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua

**Maketazioa:** Leire Rubio

**Tirada:** 1.400 ale

**Maiztasuna:** Hilabetekaria

**Inprimategia:** Euskalinpri

**Lege gordailua:** SS-246-2009

ISSN 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Zutabeak sendotzeko unea

Kaixo, lagunok:

Denboraldi ederra izan da aurten-goia ere gure klubarentzat, pozik eta harro gaude, gu bederen, denon bul-tzadaz lortzen ari garenaz. Gezurrik ez dugu esango, zaila zirudien lau talde eta saskibaloia eskola bat sortu eta zuzen kudeatzen asmatzea; baina hori gutxi ez, eta urtez urte koska bat gorantz egiteko grinarekin jarraitzen dugu.

Sonatua izan zen senior taldearen

maila igoera eta herrian jasotako harre-ra beroa; baina etxe bat ezin denez tei-latutik eraikitzen hasi, gure taldearen zutabeak sendotzeko beharra ikusten dugu. Debako, Itziarko zein inguruko herrietako edozein ume eta gazteri kirol alternatiba bat eskaintzeko prest gaude. Benjaminak eta alebinak (saski-baloia eskolan), eta infantil eta kadete mailako taldeak; beraz, neska zein mutil, saskibaloiaz gozatu eta talde giro onean disfrutatu nahi izanez gero,

ateak zabalik ditugula jakin ezazu!

Azkenik, talde hauek zuzendu ahal izateko entrenatzaileen edota entrena-tzaile laguntzaileen behar gorrian gaude. Beraz, interesatuta bazaude, zure zain gaude.

Gurekin kontaktuan jartzeko bidali mezu bat [debasketsk@gmail.com](mailto:debasketsk@gmail.com) posta elektronikora edo gure Facebook eta Instagram kontuetara.

*Debasket Saskibaloia Kluba*

## Itxi da teloa, itzali dira argiak eta bukatu da musika



Kaixo, antzerkizale maitagarriok:

Hitz hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizuegu XXXIII. Antzerki Asteak iraun duen bitartean antolatutako ditugun emanaldietara etortzeagatik.

Urtero bezala, harrera beroa egin die-zue ikuskizunei eta, erakutsi duzuen berotasunari esker, hurbilago sentitu ditugu denok antzerkia eta euskara.

Datorren urtean ere elkarrekin izango garelakoan agurtzen zaituztegu. Ondo izan eta datorren urtera arte!

*Goaz Antzerki Taldea*



## Eskerrik asko eta datorren urtera arte!

Morkaiko Mendizale Elkartearen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu maiatzean Deban egindako raida antolatzen lagundu diguzuen guztioi. Bereziki aipatu nahiko genituzke Debako Udala eta kiroldegia, emandako laguntzagatik; Itxaspe kanpina, ekimenaren antolakuntza errazteagatik; Ciclos Turbina, irabazleentzako sariekin laguntzeagatik; baita Yako Debako surf eskola ere, beraien prestutasunagatik, nahiz eta azkenean uretan probarik ez egitea erabaki. Eskertza berezia, nola ez, parte-hartzaileek igaro dituzten lur sail eta baserrien jabeei.

Horiez gain, ezin ahaztu Elgoibarko Udal Patronatua, Danobat, Alcorta, Beristain, Iriondo Kirolak, Astigarraga, Pitxintxu, Txarriduna, Mauxitxa gaztak, Ainhoa Fisioterapia, Eroski eta

Gurutze Gorria.

Eskerrik asko, antolaketan lagundu diguten Anex Retana, Patxi Marquez, Koldo Soraluze, Josu Merino, Asier Arizaga, Jose Luis Garaizabal, Aritz Larrañaga, Imanol Larrañaga, Maite Ordax, Aitor Azkue, Evaristo Rodriguez eta aipatu gabe geratu diren gainontzeko boluntarioei.

Oraindik ez dakigu gure bailara-ko zein herritan antolatuko dugun seigarren edizioa, baina Morkaiko Mendizale Elkartetik debar guztiok animatu nahi zaituztegu abentura raidean nahiz raid familiarrean parte hartzera eta bailarako txoko ederrez gurekin goatzera.

Eskerrik asko eta hurrengo urtera arte!

*Debarrenako Raid-eko antolatzaileak*

## 80ko hamarkadan egindako moda desfileetako irudien bila

Kaixo guztioi!

Idatzi hau herritar guztiei zuzenduta dago, laguntza eske gatzoz eta. Herriko diseinatzaile gazte batzuek antolatutako hainbat moda desfile egin ziren 80ko hamarkadan, Debarren Egunaren bueltan; eta desfile haietan ateratako irudiak bildu nahian gabilta orain, urte haietako lan zoragarri hura berreskuratu eta

gal ez dadin.

1981-1989 urte bitartean herrian egindako desfileetako argazkiak edo bideoak izanez gero, eskertuko genituzke gurekin harremanetan jarriko bazinate; horretarako, idatzi mezua [gador.irusta@gmail.com](mailto:gador.irusta@gmail.com) helbidera.

Eskerrik asko alde zuretik,

*Gador Irusta*



RIKARDO IDIAKEZ

### Kudea zaitetz

Adi ezazu belarritik, lagun! Zeure burua gobernatzeko abildaderik ezak miseriazko patua dakarkizu ordainetan. Autoezagutza dotrina bailitzan, goizero behartu gabeko irribarrerik sortzen ez bazaizu kolore zurbildunen klubera sententziatua izango zara.

Baina lasai, horretarako dauzkazu erremintak: onarpena, barkamena, emozioen identifikazioa, erresilientzia... Dirudi, zure aitona atxurkulua eta peritzuna erabiltzen zituen gisara, erremintok trebezia erabiltzeko gai izan behar zarela, gizaki izatekotan.

Senarraren zokormazokeriak sutzen zaituela: asertibitatea, to; eser ezazu sukaldeko aulkian eta begietara begira esan iezaiozu, maitasunez, "horrela ez, mutiko". Lan-karga neurrigabeak behar baino zama astunagoa sortzen dizula zerbikaletan: meditazioa, hara hor; hartu arnasa, energia, bizitza, eta bota arnasa, amorruek, mutxikinak. Bart konpostatze-potoa organikoen ontzira botatzea ahaztu zaizunaren erru-minak ez dizula lo hartzen uzten: autobesarkatu zaitetz, maitatu zure burua eta utzi atsekabea haizeak eraman dezan.

Ederrena da, gainera, ez zaudela bakarrik bide horretan: zabaldu Instagram eta hortxe daukazu bizilaguna, irribarretsu, Sakonetako labarretik ortzimugara begira, eta argazkipean diotso "Zein ederra den bizitza 😊 #gure bazterrak".

Finean, lagun maite, ez daukazu aitzakiarik. Eskura dituzu zorientsu izateko beharrezko erremintak, eta bidelagun birtualak. Eta ez baduzu lortzen, ez ahaztu: bene-benetan nahi ez duzulako izango da.



**Estibaliz Beltran de Heredia**

Ostolaza Udal Liburutegiko arduraduna

# Liburu artean

Jarriaian dituzue azken hilabeteetan euskaraz argitaratutako hainbat liburu; haur, gazte zein helduentzat. Aholkatzen diren liburu guztiak liburutegian aurkituko dituzue. Gogoratu udan ere liburutegia

zabalik dagoela. Ekainaren 24tik irailaren 9ra bitarte, ondoko ordutegian zabalduko da: liburutegi orokorra astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara / haur eta gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00etara.


## HAURRAK / GAZTEAK




**Pixontzian** (Alice Le Hénand), Ibaizabal. 0 urtetik aurrera



**Saguen bidaia (Oli)**. Kalandraka. 0 urtetik aurrera




**Kornelio** (Leo Lionni). Kalandraka. 0-5 urte



**Arkakusoa** (Juan Kruz Igerabide). Alberdania. 0-5 urte



**Ez dut ile kizkurrik izan nahi!** (Laura Ellen Anderson). Picarona. 6-7 urte



**Mendi beltzeko monstua** (Mikel Valverde). Elkar. 6-7 urte



**Nerbioi zinemako sekretua** (Gaizka Arostegi). Elkar. 8-10 urte



**Muxuak** (Ainara Maya Urroz). Zortziko. 12 urtetik aurrera



**Ataria** (Yolanda Arrieta). Denonartean. 12 urtetik aurrera



**Izarrak errudun** (John Green). Alai. 12 urtetik aurrera

## HELDUAK



**Basa** (Miren Amuriza). Elkar.



**Deklaratzekorik ez** (Beñat Sarasola). Susa.



**Hezurren erretura** (Miren Agur Meabe). Susa.



**Moio: gordetzea ezinezkoa zen** (Kattalin Miner). Elkar.



**Maitasun keinu bat besterik ez** (Hasier Arraiz). Elkar.



**Kontrako ezarririk** (Uxue Alberdi). Susa.



**Txikiaren handitasuna literaturan** (Mariasun Landu). Erein.



**Mutuaren hitza** (Laurent Galandon). Harriet.



**Aingurak eta arrangurak** (Josu Jimenez Maia). Pamiela.



**Osto eta ale** (J. Ostolaza eta A. Irizar). Gaztelupeko hotsak.

## 55 literatur lan aurkeztu dituzte "Deba 100 hitzetan" lehiaketara

13 idazlan euskaraz eta 42 gaztelaniaz; guztira 55 literatur lan aurkeztu dira Debako Udalak eta Cardenas Fundazioak antolatutako "Deba 100 hitzetan" literatur lehiaketara.

Euskarazko modalitatean, Koro Coca Pascualek (Donostia) lortu du lehenengo saria -500 euro-, "San Roke ermita" izenburuko lanarekin, eta Arantxa Odriozola Fernandez debarrarentzat izan da bigarren saria, 200 eurokoa, "Ermita maitea" idazlanari esker. Estibaliz Beltran de Herediak, Eider Zulaikak eta Maria Jesus Carrillok osatu dute epaimahaia.

Jorge Sainz Mingok (Burgos) lortu du lehen saria gaztelaniaz idatzitako lanen kategorian -"Galicinio" idazlanarekin-, eta Javier Francisco Rubio Salazarren (Sevilla) "La última voluntad" lanari eman dio bigarren saria Jesus Maria Etxezarretak, Patxi Aizpitarrek eta Alex Turrillasek osatutako epaimahaia. Patxi Aizpitarrek berak lehiaketak emandakoa hartu du hizpide bere kolaborazioan (azpian duzue).

Bosgarren edizioa izan du aurten "Deba 100 hitzetan" lehiaketak. San Roke ermitarekin zerikusia duten idazlanak aurkeztu behar izan dituzte parte-

hartzaileek, betiere 100 hitz baino gehiago ezin erabilita.

Sariak maiatzean banatu ziren, Agirre jauregiko ispiluen gelan. Edizio honetako irabazleak ez ezik, musika eta dantza eskolako ikasleak, epaimahaiko kideak eta Pedro Bengoetxea alkatea ere izan ziren hitzorduan.



### San Roke ermita (1. saria)

*Ez zaitut ezagutzen. Zure entzutea besterik ez dut. Jakin-minez abiatu nauzu bide malkarrean gora, San Jose loreek negua azkendu nahiz, txantxangorriek zure berri iragarritz.*

*Ederra omen zara. Abegi oneko. Nolakoak ote zure egun onduaren zimurrak? Nolakoak zure begirada? Zenbat oroigarri ote harri antzinakoen arrailek?*

*Oinek nekerik ez eta, hurbilago sumatzen zaitut. Une batez geld, adi: kresalaren urdin gaziaren xuxurla... ehun berde zabal gozoaren murmurika... bion arteko solasa.*

*Aldapan gora berriz, artega, arnasa estu... Orain bai, zu zara. Eskaileran gora, arkupetako altzoan hartu nauzu, dotorezia apalez, amak umea nola. Errotarria duzu bihotz, ezpata-dantza zuri-gorria zure debar zintzoen ahots.*

### Ermita maitea (2. saria)

*Melodiak dioen bezala: maite ditut maite gure bazterrak... Gogoko zaitut, hain gogoko izan ere.*

*Herriko zaindari zaitugu, guztiaren gorenean kokaturik, debarron artean ezaguna den Rokerekin batera.*

*Baserriak, baratzeak, zein zelai berdeak inguruan dituzularik zaitugu.*

*Urtean zehar asko dira albotik igarotzen zaizkizunak, gora zein behera; motxiladun zein motxila gabeko "bisitak". Gutxi dira ordea zugana gerturatzeko direnak, hala ere garrantzitsua zara guztiontzat.*

*Asko dira gordetzen dituzun bizipen eta sentimenduak, zein baino zein politagoak, hunkigarriagoak. Norberak, bereak.*

*Niri suertatutako guztiak ditut gogoan eta gogoko, zeren ermita maitea, gogoko zaitut, hain gogoko izan ere.*

iritzia



**PATXI  
AIZPITARTE**

### Deba 100 hitzetan

Joan den maiatzaren 16an eman ziren eza-gutzera Cardenas Fundazioak antolatzen duen lehiaketa literarioaren irabazleen izenak. Izenburuak dioen bezala, Debako alderdiren bat oinarritzat hartu eta hari buruzko idazkitxo esanguratsu eta interesgarri bat ehun hitzetan aurkeztea da erronka. Sei lerro guztira, euskaraz nahiz erdaraz. Erdarazko lehiaketa Estatu osora zabaldua dago.

Aurten San Roke ermita zen gaia eta 42 idazki aurkeztu dira erdaraz. Guztiak kontuan, Jorge Sainz burgostarraren "Galicinio" izeneko idazkia izan da irabazlea. Eta Sevillako Javier Francisco Rubioren "La última voluntad" izeneko bigarren postua lortu duena. Idazle bikainak agertu dira biak eta aurkeztutako idazkiek gai humano eta sozial garrantzitsuak jorratzen dituzte: migrazioak,

etorkinek espero duten oinarritzko harrera, amen maitasun agortezina, senideen arteko adiskidetzeta. Ez dago gehiago esaterik hain hitz gutxitan.

Honela dio irabazlearen lantxoak: "Paperik gabeko maliar baten bizitza eramanez, Amadama nekaturik eta arnasa estu hartuz iritsi zen San Roke ermitara. Behean, Deban, abuztuko hamasei goizeko lauak jo zuten, egunsentia hurbil delarik oilarrak jotzen duen unea, gizaki guztiak isiltasunaren erdian berdinduz. Portikoan etzanda, Mopti hiriko auzoko apaizak bi urte lehenago entregatutako paper zimurtua tenkatu zuen. Lokartu aurretik, zori oneko etorkizun bat amestuz, berriro irakurri eta ahoskatu zituen aurki agertuko zen Santa Maria parrokiako erretoreari luzatu behar zizkion gomendio hitzak".

## Zubia zaharberritzeko lanen nondik norakoak hizpide *Ondarea Orain* jardunaldien baitan



Deba eta Mutriku batzen dituen zubiaren zaharberritzeari buruzko hitzaldia izan zen joan den maiatzaren 29an Kultur Elkartearen. Projektuan parte hartzen duten Fhecor eta Injelan enpresetako ingeniari Javier Leonek eta Iñaki Jaimek eman zituzten azalpen nagusiak bertan; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura departamentuak antolatutako *Ondarea Orain* jardunaldien baitan egin zen saioa.

Zubiaren historiari errepasoa eginez hasi zen hitzaldia. Antonio Cortazarrek 1863an idatzitako proiektua oinarri hartuta, hiru urte beranduago eraiki zen zubia; XIX. mendearen erdialdera eraikitako harrizko azken eraikuntza zibiletako bat da, handik aurrera zubiak eraikitzeko burdina erabiltzen hasi baitziren.

Jarraian, sorreratik gaur egun arte zubiak izan dituen aldaketa eta birmoldaketan laburpena egin zuen Javier Leonek. Gogoratu zuen, esaterako, 1950eko hamarkadan desmuntatu zutela hasieran zubiak izan zuen zati altxagarria; eta igarobidea 2007az geroztik izan dela soil-soilik oinezkoentzako -lehenbizi trafikoa- errentzat ireki zen arren-. Bide batez, eraikinak historian zehar izan dituen arazoak ere aipatu zituen -1883-1892 urte bitartean ere hauteman zituzten, adibidez, xilofagoek eragindako kalteak-.

Jakina denez, iazko uztailaren 5ean izan zen ezbehar larriena, zubi zahararren oinarri bat hondoratu, eta zubiaren zati batek behera egin zuenean. Egoera ikusita, Aldundiak eraikinen kontserbazio egoera aztertzeke txosten tekniko eskatu zuen; eta txosten horretan oharta-

razten zen arrisku larria zegoela bi ganga eta ibaian behera dagoen aldeko tinpanoa kolapsatzeko, horiek kaltetzen dituzten xilofagoen ondorioz. Bestalde, azterketak azaleratu zuen nabarmen galdu zela zutabearen zurezko parriladuraren azpiko materiala. "Kolapsoa zuraren konpresioan izandako bat-bateko akats baten eraginez gertatu zen -argitu zuten- eta sekzioa gutxitu izanagatik erresistentzia galdu izanari zor zaio. Akatsa ia aldi berean gertatuko zen hainbat pilotetan".

Egoeraren arriskuaz jabetuta, Aldundiak larrialdiko prozedura bidez ekin zien zubiaren erortzea saihesteko eta haren kontserbazioa bermatzeko lanei. Larrialdiko lehen fasearen helburu nagusia izan da gangen egonkortasuna bermatzea, eta horretarako jarri zuten egitura osagarria zubiaren gainean, ganga horiei eusteko.

### Lanen lehen fasea, amaituta

Oraintsu amaitu dute obren lehen fasea, eta birgaitze integralerako fasea abiatu beharko da orain. Noiz eta nola ekingo zaio horri? Zenbat iraungo dute lanek orotara? Zenbateko kostea izango dute?... Bada, hitzaldian ez zen askorik argitu zentzu horretan. Hitza hartu zuten ingeniariak eta Aldundiko kideek azaldu zuten proiektua amaitu egin behar dela lehenbizi; eta ondoren etorriko dela hori balioztatzea, lizitatzea, aurrekontuak proposatu eta onartzea... Ordura arte, beraz, ezin omen dute bestelako daturik aurreratu obren nondik norakoei dagokienean. "Argi dugunean lana noiz, nola eta zein plazotan egingo dugun, etorriko gara

berriz ere azalpenak ematera".

Hitzaldiaren amaieran, zubiaren hausturak kaltetutako bizilagunek informazioa eta azalpenak eskatu zituzten, euren egoera ez dela erraza gogoraraziz. Ondare kulturalaren garrantzia pertsonen ongizatearen gainetik jarri dela uste dute.

Argi azaldu zuten martxoaren 31n antolatu zuten protesta ibilaldian, baita apirilean *Berriketan*-en kaleratutako idatzian ere: "Auzoa herriarekin komunikatzeko pasabidea egiten ari zirela uste genuen, baina obra konplexu baten bitartez igaroko den pasabidea baino ez da bideratu. Ulertzen dugu, zubia ondasun baliotsua denez, berreraikuntza lanek izaera berezia izatea. Baina, ez dugu ulertzen 300 bizilagun ingururen eta Debako biztanle guztien ezinbesteko beharrari baino, zubiaren berreraikitzeari lehentasun handiagoa ematea". Urazamendik auzoa eta Deba lotuko dituen igarobide seguru eta irisgarria eskatzen dute oinezkoentzat; egungo pasabideak ezaugarri horiek ez dituela salatuz.

Ondare kulturala babestean jarrita du arreta, ordea, Aldundiak; "zubiaren erortzeko arriskua zegoen eta eraikina bermatzen saiatu gara larrialdiko prozeduraren bitartez. Obra konplexua da oso. Ulertzen dugu egoera, eta kaltetutako bizilagunen egonezina eta haserrearen, baina agian hemen -hitzaldian- ez daude eskaera horiek bideratzeko bitartekari aproposak; gu Kultura sailetik gatoz". Bizilagunen aldarrikapenak aintzat hartu eta "dagokionari" helarazteko konpromisoa hartu zuten, behinik behin, Aldundiko kideek.




## Kattalin Minerrek “Moio. Gordetzea ezinezkoa zen” liburua argitaratu du, Tene Mujika beka baliatuta

Debako Udalak eta Elkar argitale-  
txeak antolatutako XII. Tene Mujika  
bekaren fruitua da Kattalin Minerren  
(Hernani, 1988) liburua. 2018ko  
otsailean jaso zuen beka eta urtebete  
inguruko epea izan du lana osatzeko.

Euskal Herriko historia hurbilaz  
idazteko ez fikziozko proiektuak  
saritzen ditu Tene Mujika  
bekak, eta orain dela hama-  
bi urteko gerkatari bat  
hartu zuen abiapuntutzat  
Minerrek bere proiektuan:  
2007ko apirilaren 23an,  
bere buruaz beste egin  
zuen Aimar Elozegi gazte  
transexual hernaniarrak.

Minerrek herrikidea eta  
laguna zuen Elozegi, baina “hau ez  
da biografia liburu bat”, argitu du  
idazleak, “nahiz eta pertsona baten  
bueltan egindako narrazioa den”.  
Alderdi pertsonaletik harago, hain  
zuzen, Elosegiren kasuak islatzen  
duen egoera sozialak bultzatuta  
osatu du lana Minerrek. “Konturatu  
nintzen ezinegona eragiten zidana  
zela gaia oso isilik zegoela, batez ere,  
duela hamabi urte izan zuen erantzun-  
narekin eta oihartzunarekin alderatuta.  
Nolabait, gai hau plano intimo-



ra pasa genuela sumatu nuen.  
Sozialki ez ginen memoria egiten ari.  
Eta ez hori bakarrik; intuizioa nuen  
ez ginelarik ari transmisioa bermatzen”.

Elosegiren heriotzatik 10 urte  
pasa zirenean, eguneroko bat idazten  
hasi zen Miner, baina bide hori ibili  
eta azkar konturatu zen egiten ari  
zena konpartitzeko beha-  
rra zuela, eta asko zeukala  
entzuteko. “Ikusi nuen  
jende askok zuela behar  
hori, eta jende askok  
zituela gertatutakoaren  
irakurketa politiko, per-  
tsonal, sozial nahiz kultura-  
lako”.

Hori hala, ahots des-  
berdin horiek jasotzeko, bederatzi  
testigantza batu ditu liburuak, ertz  
desberdinetatik egindako begiradak  
bildu nahian. Tartean daude Elozegi  
Ansaren anaiarena, kuadrillako lagu-  
nena, Medeak talde transfeministako  
kideena, Bryan Altismabere  
Hernaniko gazte transexualarena  
edota Maialen Lujanbio eta Iratxe  
Retolazarena.

Maiatzaren erdialdean aurkeztu  
zen “Moio. Gordetzea ezinezkoa zen”  
liburua, Donostian eta Hernanin.

## 700 bat ikusle Kulunka taldearen jaialdian



Ander Salegi

Kulunka taldeko kideen ikasturte amaierako jaialdiak ikusmin handia sor-  
tzen jarraitzen du. Ikuskizunerako sarrera guztiak saldu dira aurten ere -700  
guztira-, Aldats pilotalekua txiki geldituz. Ekainaren 8an izan zen jaialdia eta  
oholtza gainean 4 eta 60 urte bitarteko 120 bat ikasle aritu ziren, estilo ezberdi-  
neko hogeitik gora koreografia taularatzen. Elai Sarasola eta Alaitz Izaga irakas-  
leak aritu dira jaialdirako dantzak prestatzen.



IRAIA AGIRREZABALA

## Udaberri koloretan

Udaberria aurrera doan bezala, lan-  
dareen koloreak pizten doaz. Gehien  
gustatzen zaidana, akazien loreen zuriaz,  
gereziak eta marrubiak gorritzen doazen  
bezala gorriaz, txiza loreen horiaz gain,  
ezin konta ahala berde tonalitate aurki  
ditzakedala.

Arno eta bere inguruari begiratzea  
besterik ez daukat; neguan berde ilun  
ikusten nuen hura (artadiari dagokiona  
batez ere), eta margolari batek margotu-  
tako koadroa dirudi. Eta belarra moztu  
berri duten zelaiek ere kontraste ederra  
egiten dute.

Baina zer pasatuko da “*Lecanosticta  
acicola*” izeneko onddoak erasandako  
pinuak botatzean? Oraingoz lehen gure  
inguruan nagusitzen zen berde iluna  
hainbat gunetan marroi bihurtu da, gai-  
tzak jo dituelako edo pinudiak bota dire-  
lako. Eta gero? Horren sail handietan  
espezie bakarra sartuz gero, gaitzen au-  
rrean zaurgarri bihurtzen ditugu basoak.

Gogoan dut aitxitzak kontatzen zida-  
la bere akorduan inguruko mendiak  
zuhaitzik gabe ezagutu zituela, egurra  
ikatza egiteko erabiltzen baitzen. Hura  
bukatu zen eta poliki-poliki gaur egun  
dugunera iritsi gara. Espero dut egoera  
bera ez errepikatzea, baina kezkatzen  
nauen kontu bat da. Lur zati bat dugu-  
nok ezin dugu edozein lekutan edozer  
espezie eta edozein modutan ez landatu  
eta ezta moztu ere. Eta eskerrak! Baina  
agintariek? Bide bat zabaltzeko edota  
euren proiekturen bat aurrera eramateko  
dena libre?

Niretzako inguruan ikusten dudak  
kolore horien guztien artean dagoena  
aberastasuna da, aniztasunak eman die-  
zagukeen altxorra; bai mendian eta baita  
kalean ere. Zain dezagun.



*Herritar ugari bildu ziren aurkezpen ekitaldian, tartean libururako euren testigantzak eskaini dituzten bizilagunak eta familiak ere. Talde argazkia atera zuten gero guztiek, Polentzi Markiegiren irudia atzeko planoan zutela.*

## MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEKO BESTE URRATS BAT

1936tik 1945era Deban gertatutakoaren inguruko ikerketa proiektuaren liburua aurkeztu dute Aranzadi Zientzia Elkarteak kideek eta udal ordezkariak. Garai haietan izandako errepresioa eta giza eskubideen urraketak aztertu dituzte, "iraganeko akatsez ikasi eta, ahal den neurrian, horiek kon-

pontzeko, etorkizunean errepika ez daitezen". Bi liburukitan plazaratu da memoria historikoa berreskuratzeko helburuz osatutako lanaren emaitza. Dokumentazio historikoaz gain, urte haiek bizi izan zituzten bizilagunen testigantzak ere bildu dituzte liburuan.

"Deba, 1936-1945. Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan". Izenburu horrekin plazaratu berri du Aranzadi Zientzia Elkarteak azken bizpahiru urteotan egindako ikerketak jasotzen dituen argitalpena. Ekainaren 6an egin zen aurkezpena, Debako udaletxean; bete-bete egon zen pleno aretoa.

Debako Udaltzaren 2017ko maiatzeko onartu zuen, aho batez, Aranzadik proposatutako memoria historikoaren berreskurapen eta ikerketa proiektua martxan jartzea herrian.

Finean, 1936-1945 urte bitartean izandako errepresio eta giza eskubideen urraketak aztertzea izan da egitasmo horren helburua, "iraganeko akatsez ikasi eta, ahal den neurrian, horiek konpontzeko, etorkizunean errepika ez daitezen". Eta, norabide horretan egindako lanaren emaitza da, hain justu, orain aur-

keztu berri dutena.

Aranzadi Zientzia Elkarteak Iraitz Arizabaleta Gantxegik (Bergara, 1990) idatzi du liburua; proiektuaren koordinazioa, berriz, Javi Buceseke eta Juantxo Agirre-Mauleonek egin dute.

Azken emaitza bi liburukitan argitaratu dute; 400dik gora orrialde guztira, testuak elebitan idatzita (euskara-gaztelania), eta garaiko dokumentu eta argazki ugari hornituta. Edukia bost atal nagusitan banatu edo sailkatu dute: Pedro Bengoetxea alkatearen aurkezpena dator hasieran, eta ondoko hauek segidan: "Deba Bigarren errepublikan 1931-1936"; "Deba: 1936ko uztailaren 18tik irailaren 23ra"; "Errepresioa Deban eta debarren aurka Lehen Frankismoan", eta lekukotzak.

### Zuzeneko testigantzen garrantzia

Azken atal horrek duen berebiziko

garrantzia nabarmendu dute proiektuaren arduradunek, urte haietan bizi izan ziren pertsonen testigantzak edo hildako edo errepresaliatutako pertsonen zuzeneko senideenak jasotzeko ahalbidetzen baitu gure historiaren aro garrantzitsu bat ahanzturatik eta isiltasunetik ateratzea. Ikerketaren baitan funtsezkoa izan da, hortaz, bizilagunen parte-hartzea.

Deba eta Itziarko 40 bat herritarren lekukotasunak bildu dituzte liburuan. "Gertakari latz haiek ez dira inoiz ahanzturan jausiko, zuei esker, zuen testigantzei esker", azpimarratu zuen Iraitz Arizabaleta ikerlariak aurkezpenean. Aretoan bertan zeuden euren bizipen pertsonalak kontatuz testigantza eskaini duten hainbat eta hainbat bizilagun.

Gertatu zena ezagutzeko ez ezik, garai haietan egoera lazarriak jasan behar izan zituzten pertsona haien sufrimendua aitortu eta omenaldia egitea ere

bilatzen du lan honek, Egia, Justizia eta Erreparazioaren printzipioak bere eginez. "Matxinada eta diktadura frankistaren errepresioa pairatu zuten debarrei eta Euskal Herriaren askatasunaren eta Errepublikaren alde borrokatu zutenei eskaintzen zaie liburua".

"83 urte pasa diren arren, egiaren zatitxo bat jakin nahi dugu. Kasu guztiak ez ditugu ezagutuko, sentimenduk ezta ere, baina ikertzen jarraituko dugu", adierazi zuen Aranzadiko Agirre-Mauleonek. Bide batez, ohartarazi zuen memoria historikoaren ariketa edo bidea ez dela amaitzen liburu batekin, gure historia ez ahazteko, "ezinbestekoa baita etorkizuneko belaunaldiei ere urte haietan jazotakoa transmititzea". "Egiak laguntzen gaitu gizarte libreago bat izaten".

Arizabaleta idazlearen esanetan, "Debak egia berreskuratzea merezi zuen"; eta helburu horrekin ikusi du argia "errepresioa pairatu zuten guztiei eskaintzen diegun" lan honek. Liburua ez dagoela "itxita" ere gaineratu zuen;

**Bi liburukitan kaleratu  
dute ikerketaren emaitza;  
testuak elebitan idatzita  
daude, eta garaiko  
dokumentu eta argazki  
ugariz hornituta.  
Turismo bulegoan  
eskuratu daitezke aleak,  
5 euroren truke**

aurrerantzean datu berririk balego, adibidez, datu berri horiek edo ikerketako aurkikuntzak ere dokumentuan erantsiko lituzketela azaldu zuen.

Esker ona agertu zien orain arteko ikerketan laguntza eskaini duten erakunde nahiz norbanakoei. Eta, bide batez, gogora ekarri zituen Deban eta Itziazarren gerraren ondorioak zeharka ala zuzenean pairatu behar izan zituzten hainbat eta hainbat herritar, hala nola

emakumeak -euren kontrako errepresioak bere tarte du ikerketan-, frontean borrokan hildako gudari zein miliziano debarrek, gerra kontseiluetatik pasa behar izan zuten 102 herritarrak; herri-kanporatuak, erbestea, ihesa, kontzentrazio esparruak... ezagutu behar izan zituztenak, edo fusilatu egin zituztenak. Ezin aipatu gabe utzi ekitaldiko une ezberdinetan hainbat partaideren ahotan presente egon zen Florentzio Markiegiren figura bera, adibidez; Markiegi alkate izateagatik eta bere ideiak defendatzeagatik fusilatu zuten tropa frankistek, 1937ko urriaren 15ean.

Aranzadiko kideen ostean, udal ordezkariak ere hartu zuten hitza aurkezpenean. Amaia Zinkunegik gidatu zuen ekitaldia, eta Aitzuri Abesbatzak ere parte hartu zuen bertan.

Ekitaldiaren amaieran banatu zituzten liburuaren lehenbiziko aleak -ikerketan parte hartu dutenen artean-. Gainontzeko herritarrek Turismo bulego jo beharko dute liburukiak eskuratzeko -bost euroan jarri dira salgai-.



*Iraitz Arizabaleta Gantxegi ikerlariak idatzi du liburua.*

## 200 lagun inguruk parte hartu zuten V. Debarrenako raidean



Pasa den maiatzaren 25ean, Deban jokatu zen Debarrenako Raida, estreinako. Probaren bosgarren edizioa izan da aurtengoa eta, iaz bezala, 7 orduko proba nagusiaz gain, orientazio proba familiar bat ere bazegoen Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako egitarauan. Proba nagusian 110 lagunek hartu zuten parte eta proba txikian, berriz, 85 haur eta helduk.

### Proba nagusia:

10:00etan hasi zen proba nagusia, zumardiko kioskoan. Ordu erdian amaitu zuten bikote gehienek lehen sekzioa –Debako kaleetan orientazio proba txiki bat–. Horrez gain, hondartzan joko dibertigarri bat ere egin zuten; makil bati bueltak eman ostean, ibilbide zuzen bat egin behar zuten, eta batek baino gehiagok lanak izan zituen zorabiatuta lurrera ez erortzeko. Ondoren, bizikle-

tak hartu eta Itziar, Arbil, Lastur eta Andutz inguruetan ibili ziren parte-hartzaileak. Eskalada proba bat egin zuten gero Lasturren, eta espeleologian aritu ziren Ugarteberri koban.

Bi trekking egin dira aurten. Lehena Andutz inguruan egin behar izan zuten, 8 kilometroko ibilbidean eta 625 metroko desnibelarekin; eta, bestea Itxaspe-Sakoneta inguruan, Geoparkearen barne-barnean. Bigarren trekking-ak 10 bat kilometroko ibilbidea zuen, 500 metro inguruko desnibelarekin. Bertan, geologiari buruzko proba berezi bat ere egin behar izan zuten, Geoparkearen sorrera eta berezitasunei buruzko hiru galdera erantzunez.

Behin trekking-ak amaituta, partaideak bizikletan itzuli ziren Debara, probari amaiera emateko; 37 kilometroko ibilbidea osatu zuten (1.100 metroko desnibelduna).

### Orientazio proba familiarra:

10:30ean elkartu ziren familiak zumardiko kioskoan. Bertan, antolatzailleen azalpenak adi-adi entzun zituzten nagusi zein gazteek. 11:00etan eman zioten hasiera probari eta talde bakoitzeko txikiak korrika bizian joan ziren mapak hartzera. Talde bakoitzak mapa ondo aztertu ondoren, Deba inguruetan zeuden baliza ezberdinen bila abiatu ziren. Hondartzan joko berezi bat presatatu zieten, eta zumardian slackline-a eta mikroorientazio proba bat ere gainditu behar izan zuten partaideek.

Bi orduko proba, lasterkaldi eta orientazio ariketa ezberdinak egin ondoren, helmugan bertan zegoen anoa-postuan elkartu ziren partaideak.

Sailkapenak eta argazkiak ondorengo linketan aurkituko dituzue: <https://debarrenaraid.wordpress.com> eta <https://www.facebook.com/debarrenaraid/>.

## Zabalik dago Uda Kirola programan izena emateko epea

Udaleko Kirol Sailak hainbat ikastaro eskainiko ditu aurten ere, uda partean. Surf, bodyboard, arraun surf, skate, piraguismoa eta xake ikastaroa daude egitarauaren baitan. Bost eguneko iraupena izango dute ikastarok; astelehenetik ostiralera bitartean. Lehen txandak ekainaren 24an hasiko dira, surfaren, piraguismoaren eta skatearen kasuan; eta, abuztura bitartean, astero-astero eskainiko dira. Bodyboard edota arraun surfa/stand

up paddle) egin nahi dutenek, berriz, hiruzpalau aste bakarrik izango dituzte aukeran: stand up paddlea, uztailearen 1etik 5era, uztailearen 15etik 19ra eta uztailearen 29tik abuztuaren 2ra; bodyboarda, berriz, ekainaren 24tik 28ra, uztailearen 8tik 12ra, eta abuztuaren 19tik 23ra.

Turismo bulegora jo beharko dute Uda Kirola egitasmoaren inguruko informazio gehiago lortzeko edota ikastaroetan izena emateko interesa

dutenek; deitu 943 19 24 52 telefono zenbakira, idatzi [turismoa@deba.eus](mailto:turismoa@deba.eus) helbidera edo kontsultatu [www.deba.eus](http://www.deba.eus) ataria.

Udaleko Kirol Sailak antolatutako jardueraz gain, besteak beste, kiroldegiko eskaintza, Nordic Walking ikastaroak, Amaiak Baten futbol udalekuak eta Debasketek antolatutako saskibaloia campusa ere izango dira aurten aukeran. Guztien inguruko informazioa jaso dute [www.deba.eus-en](http://www.deba.eus-en).

## Amagoia Arrietak urrea ekarri du Bocciako Espainiako Txapelketatik

Urrezko domina eskuratu zuen Amagoia Arrieta kirolari debarrak pasa den ekainaren 8-9ko asteburuan Pisuergan (Valladolid) jokatuako Bocciako Banakako Espainiako Txapelketan, BC1 kategorian.

Hamahiru kirolari lehiatu ziren kategoria berean, eta Arrieta nagusitu zen guztien artean. Dordoka Kirol Elkarteko kideak ez zuen hasiera ona izan txapelketan, Serafin Rodriguez 2018ko txapeldunaren aurkako lehian ezin izan baitzuen garaipena lortu.

Dena den, finalerdietarako pasea eskuratu zuen gero debarrak, Juan Manuel Moreno sevillarraren aurka gailendu zenean. Fin ibili zen finalerdietan ere: 6-1 irabazi zuen tantotan Vicente Lleti aurkariaren kontra, eta Alvaro Ballesterosen aurka ere garaipena lortu zuen azkenean, norgehiagoka gogorragoa izan zuten arren (4-3).

Txapelketako azken partidaren Ferran Ribas kataluniarraren aurka lortutako garaipenarekin (4-1) eskuratu zuen urrezko domina Arrietak.

## Amaitu du denboraldia Amaiak Batek



Amaiera biribila eman dio Amaiak Batek futbol denboraldiari. Neska kadeteek ohorezko mailara igotzea lortu dute aurten, denboraldi bikaina egin ostean. Maiatzaren 25ean Usurbilen kontra jokatu zuten neskek denboraldiko azken partida eta, hasieran galtzen joan ziren arren, berdinketa lortu zuten gero, sailkapen orokorrean bigarren postua bereganatu. Azkenean, gogor lehiatu eta merezitako igoerarekin eman zioten amaiera denboraldiari. Partidaren ondoren, harrera beroa egin zieten uda-

letzeko baloian garaipena ospatzeko.

Bestetik, Amaiak Bateko kideek urteroko batzarra eta herri bazkaria egin zuten ekainaren 15ean, denboraldiari amaiera emateko. Zuzendaritza batzordea berritu zuten Kultur elkartean bildutako bazkideek. Jose Maria Sotok jarraituko du lehendakari lanetan; Gaizka Ayastuy arituko da lehendakariorde eta Joseba Gorosabelek jardungo du diruzain. Batzarraren ostean, paella erraldoiaren inguruan elkartu ziren jokalariek, bazkide eta bestelakoak Aldats pilotalekuan.

## Elgoibarko Haundi futbol taldea gidatuko du Pablo Turrillasek

Pablo Turrillas Aranzeta debarra da Haundiko entrenatzaile berria. Aurrez ere C.D. Elgoibarko jokalariek eta entrenatzaile izana da, eta orain klubeko lehenengo taldea gidatzeko ardura hartu du bere gain.

Turrillasek hogeita hamar urte daramatza futbol taldeak entrenatzen. Bere ibilbidean Euskal Herriko

talde ugari aritu da eta, orain, bueltan da C.D. Elgoibarren. Turrillasek aurkezpenean nabarmendu zuenez, beti egon da "zorretan" klubarekin eta Elgoibarko herriarekin eta, aro berri honetan, "taldea kategorian egonkortzeko eta herriko jokalarien aldeko apustua mantentzeko helburuarekin" arituko da.

## Uztailaren 7an jokatu da XII. Debako Itxasmila

Uztailaren 7an (igandea) jokatu da XII. Debako Itxasmila Igeri-Zeharkaldia, Deba Xtrem kirol taldearen ekimenez. Hitzordua astebete beranduago egitea aurreikusi zuten hasieran, baina azkenean hilaren 7ra pasa dute, bestelako kirol proba batzuekin ez dezan kointziditu.

11:30ean emango zaio hasiera hitzorduari, eta 1852 metroko ibilbidea osatu beharko dute igerilariek. Dagoeneko zabalik dago proban izena emateko epea. Informazio gehiagorako: kontsultatu [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) ataria edo jarri harremanetan Deba Xtrem taldearekin.

## Emaitza politak lortu dituzte Mintxeta Atletismo Taldeko korrikalari debarrek

Elgoibarko Mintxeta Atletismo Taldeak jakinarazi duenez, azken asteotan hainbat txapelketatan parte hartu dute taldeko kideek, baita emaitza politak lortu ere. Besteak beste, Euskadiko 38. Eskolarteko Kirol Jokoetan parte hartu zuen Anwar El Hassouni infantilak, eta txapeldunorde geratu zen 3.000 metroko lasterketan -Gipuzkoako selekzioarekin aritu zen lehian-.

Taldeko kide dira, era berean, Andoni Orio eta Iñaki Beasain korrikalari debarrak ere. Biek ala biek parte hartu zuten Anoetako Estadioan jokatuako Gipuzkoako Atletismo Txapelketan. 200 metroko finalerdietan aritu zen Orio -25 segundo eta 83 ehuneko denbora eginda-, eta Beasain 800 metroko finalean lehiatu zen -2 minutu eta segundo bat behar izan zituen proba amaitzeko-.





## Ekainaren 15ean hartu zuten kargua udal ordezkariak

EH Bilduk gobernatuko du Deban datozen lau urteotan eta Gilen Garcia Boyra izango da alkate. Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan lehen indarra izan zen EH Bildu, sei zinegotzi eskuratuta (1.334 herritarren babesa jasota). Debarren Ahotsak lau hautetsi eskuratu zituen (942 bozka lortuta) eta EAJ-PNVk, berriz, hiru (738 botorekin).

Ekainaren 15ean egin zen Udalbatza eratzekeo bilkura berezia. Protokoloari jarraiki, lehenik hiru kideko Adin Mahaia osatu zuten zinegotzi zaharrena eta gazteena, Isidor Lamarianok eta Gilen Garcia, eta udal idazkariak. Ondoren, zinegotzi hautatuek karguari

zin edo promesa egin zioten, "legeak hala behartuta" zenbait kasutan.

Behin karguak hartuta, alkatea izendatzeko ordua heldu zen. Aurrez, alkategaiei hitza hartzeko aukera eman zitzaien eta, segidan, kargua hartu berri zuten zinegotziek kutxa batean sartu zuten euren botoa.

Bere alderdiko kideen aldeko sei botoak lortu zituen Gilen Garcia. Debarren Ahotsako Pedro Bengoetxeak ere bere hautagaitza aurkeztu zuen alkate izateko, eta aldeko lau boto izan zituen. EAJko hiru ordezkariak, bestetik, boto zuria eman zuten, erabakigarriak izan ziren hiru boto zuri, alegia.

Izan ere, hautagaietako bakar batek ere ez zuen gehiengo absolutua lortu bozketan; hortaz, Gilen Garcia bigarren bueltan izendatu zuten alkate, EH Bildu izan zelako indar bozkatuena hauteskundeetan. Azken unera arte ez zen argi egon, ofizialki behintzat, alkatetzarekin gertatuko zena; DA eta EAJ-PNVren arteko balizko hitzarmen batek (zazpi zinegotziren botoen batuketak) kolokan jar zezakeen EH Bilduren agintaritzatza.

Azkenik, baina, ez da halakorik izan. Herritarrek hautetsontzietan emandako botoekin eskuratu du EH Bilduk alkate-tza. Pedro Bengoetxearen (DA) lekukoa hartu du dagoeneko Gilen Garcia.



Gilen Garcia  
EHB



Itziar Irizar  
EHB



Antxon Etxeberria  
EHB



Nerea Arrizabalaga  
EHB



Aritz Larrañaga  
EHB



Antxoka Elorza  
EHB



Pedro Bengoetxea  
DA



Ane Miren Egidazu  
DA



Enrique Jorge Salgado  
DA



Isidor Lamariano  
DA



Inigo Cambronero  
EAJ



Eneritz Gomez  
EAJ




Miren Arritokieta Esnal  
EAJ

### UDAL HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

| Alderdiak       | Botoak 2019 | Zinegotziak | Botoak 2015 |
|-----------------|-------------|-------------|-------------|
| EH Bildu        | 1.334       | 6 (+1)      | 1.127       |
| Debarren Ahotsa | 942         | 4 (-1)      | 1.259       |
| EAJ-PNV         | 738         | 3 (=)       | 667         |
| PSE-EE          | 79          | -           | 43          |
| Zuriak          | 61          |             | 73          |

Errolda: **4.289**  
Abstentzioa: %25,65

Boto-emaileak: **3.189**  
Baliogabeak: 35



### GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

| Alderdiak          | %     | Botoak 2019 | Botoak 2015 |
|--------------------|-------|-------------|-------------|
| EAJ-PNV            | 43,62 | 1.365       | 1.280       |
| EH Bildu           | 38,86 | 1.216       | 1.160       |
| Elkarrekin Podemos | 7,79  | 244         | 369         |
| PSE-EE             | 6,71  | 210         | 184         |
| PP                 | 1,91  | 60          | 83          |
| Zuriak             | 1,08  | 34          | 62          |

Errolda: **4.289**  
Abstentzioa: %25,92

Boto-emaileak: **3.168**  
Baliogabeak: 39



### EUROPAKO PARLAMENTUA

| Alderdiak      | %     | Botoak 2019 | Botoak 2014 |
|----------------|-------|-------------|-------------|
| EAJ-PNV        | 39,20 | 1.222       | 739         |
| EH Bildu       | 37,38 | 1.165       | 849         |
| Podemos        | 9,02  | 281         | 80          |
| PSOE           | 8,66  | 270         | 112         |
| PP             | 1,54  | 48          | 83          |
| Ciudadanos     | 0,99  | 31          | 8           |
| Junts per Cat. | 0,67  | 21          | -           |
| VOX            | 0,42  | 13          | 2           |
| Bestelakoak    | 1,24  | 35          | 203         |
| Zuriak         | 1,05  | 33          | 30          |

Errolda: **4.289**  
Abstentzioa: %26,57

Boto-emaileak: **3.149**  
Baliogabeak: 30



EH Bildu oso pozik dago lortutako emaitzekin. Kanpaina bera ere berezia izan da eta ilusioa sumatu dugu hau martxan jarri genuenetik. Orotariko jendea gerturatu zaigu ekarpenak egitera eta guk jarrera irekia izan dugu hasieratik. Emaitzak ere horren isla izan dira; jendearekiko gertutasuna eta beraien ekarpenak modu zuzenean jasotzeko borondatea erakutsi izana eskertu dute herritarrek.

Udalerrri osoan lortutako botoen banaketa orekatua izan dela uste dugu. Deban lehen indarra izatea lortzeaz gain, Itziarren eta landa eremuan, oro har, oso emaitza onak lortu ditugu. Uler genezake herritarrek, nolabait ere, Itziarko Auzo Udalaren inguruko eztabaida gainditutzat jotzen dutela, eta Tokiko Erakunde

Txikiaren abantailak azpimarratzen dituztela bestelako mezuen gainetik. Elkarlanaren mezua izan da orain arte indartzen saiatu garena; orain, bide horixe jorratzea izango da gure erronka. Bide batez, Arantza Egaña auzo alkate berria zoriondu nahiko genuke.

Hauteskundeetako emaitzak kontuan izanik, Debarren Ahotsarekin eta EAJrekin harremanetan jartzea zegokigula ikusi genuen. Gobernatzeko intentzioa adieraztea izan zen gure abiapuntua. Lehendabizikoek azken legegintzaldiko gobernuari segida eman nahi ziotela jakinarazi ziguten; hortaz, gure elkarriketarako borondateaz gain, ezer gutxi izan genuen eskaintzeko. EAJrekin, ordea, ikuspegi amankomuna izan genuen: egonkortasuna, gehiengo oso baten bitar-

tez baino gehiago, herritarren gehiengoaren hautua errespetatuz lortuko zela. Eta, zoriez, horrela izan da.

Orain erronka handia dugu. Gobernua osatu eta Udala gidatzea dago-kigu. Gainera, zinegotzien banaketak agertoki interesgarria utzi du, eta horrek akordioak lortzeko beharra azaleratzen du. Lehenagotik ere gure jarrera eraikitzaile eta irekia aldarrikatu dugu. Hala ere, orain jarrera horri eusten jakin behar-kogu dugu, unerik deserosoenetan ere.

Lan handia dugu egiteko orain. Udalean bertan eta herri mailan koordinazio eta elkarlan handiagoz aritzea garrantzitsua dela deritzogu. Gure herriarekin egin nahi diogu aurre erronka berri honi!

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!



Zinegotzi bat galdu dugun arren, gure balorazioa nahiko baikorra da; izan ere, oraindik Deba/Itziarren botoen %30 (942 bozka) izaten jarraitzen dugu.

Udal hauteskunde hauetan hainbat boto galdu ditugu, baina galera horren zergatia ezin da arrazoi bakarrean laburbildu. Alde batetik, gobernuan egoteak ezinbestean desgastea dakar; bestetik, ez dugu asmatu egindako lan

guztia ezagutzera ematen; horrez gain, Itziarko Auzo Udalaren auzia hor dago; eta hauteskunderen aurretik Eusko Alkartasuna (EA) alderdiak egindako eraso ere kontuan izan behar dugu.

Legealdiak iraun duen bitartean, gure programarekin koherenteak izan garelakoan gaude.

Hauteskunderen emaitzak ikusita, gure asmoa eta proposamena izan da aurreko udal gobernuari (DA/EAJ)

jarraipena ematea, eta horrela gehiengo osoa eskuratzea, baina EAJren iritziz aldatetako ezinezkoa egin du hitzarmena.

Lerro hauen bitartez, gure boto-emaleei eta debar guztiei esan nahi diegu, oposizioan baldin bagaude ere, herriaren alde lan egiten jarraituko dugula, eta gure programan ezarritako helburuak betetzen saiatuko gara.

Zorionak, EH Bildu, lortutako emaitzengatik!



2015-2019 legegintzaldia bukatu eta azken udal hauteskundeetako egoera ikusita, herritarrek Debako udaletxean aldaketa eskatu dutela ondorioztatu dugu.

Orain lau urte, Debarren Ahotsak irabazi zituen hauteskundeak, aldaketa aginduarekin. EAJ-PNVn ere aldaketa beharra ikusi genuen eta DA-EAJ koalizioko gobernuaren alde egin genuen, gobernatuzordean parte hartuz eta hainbat batzorde eta patronaturen ardura hartuz.

Debaren alde gogor aritu gara lanean. Arte Eskolaren egoerari irtenbidea eman diogu; debar guztientzat barneratzailea den kultur eredu eta jaien alde egin dugu lan; birziklatze emaitzak nabarmen hobetu ditugu eta herriaren itxura txikund

dugu, beste gauza batzuen artean. Hau guztia EAJko 3 zinegotziek udaletxean egin duten lanari esker egin ahal izan da.

Argi dago ez dugula udaletxean EAJren lana zein izan den zabaltzen jakin. EAJ Deban aldaketarako bide da, eta gobernu bermea DA eta EH Bilduren aurrean. Guk ideiak garbi dituen gobernuan sinisten dugu, ausardiaz erabakiak hartzen dituen gobernuan, eta besteak entzuten dituen gobernuan.

Debarrek azken 4 urteei aldaketa beharrezkin erantzun diete eta hauteskunderen garaile den EH Bilduk du horretarako eskubidea. Hainbat bilera izan ditugu bai EH Bildu eta baita DArekin ere; emaitzen inguruan esateko zutena entzun dugu, baita haien asmoak ere.

Gure ibilbidea, emaitzak, proposamenak eta beste bi taldeen asmoen inguruan hausnarketa egin ondoren, argi dugu EAJren egitekoa lan eraginkor eta parte-hartzailea aurrera eramatea dela, eta horregatik ez dugu gure hautagaia alkatetzara aurkeztu. Baina ez dugu beste hautagairik ere babestu. Ez dugu EH Bilduk defendatzen duen gizarte eredu partekatzen. DAre gobernu eredu ere ez dugu partekatzen. Ezin dugu ezer gertatu ez balitz bezala jokatu eta eurekin gobernu errepikatu.

Gure Debarekiko konpromisoa edozein akordio edo itun baino tinkoagoa da eta horregatik jarraituko dugu Debaren eta debarren alde lanean. Gure borondatea, konpromisoa eta izatea hau delako.



## Arantza Egaña izendatu dute Itziarko Auzo Udaleko alkate

Udal, foru eta europar hauteskundeetarako hautetsontzien ondoan laugarren bat izan dute Itziarko barrutian, Itziarko auzo alkatea aukeratzeko, hain zuzen ere. Orain lau urte bezala, hautagaitza bateratua aurkeztu dute bertan, Denon Herria ekimenaren izenean, Itziarko Auzo Udalak hasieratik hartu duen batzar ereduaren isla.

Arantza Egaña Aldalur da auzo alkate berria, herritarren babes zabala jaso ondoren. Orain arte talde eragilean aritu da lanean Arantza Egaña, eta berak hartu du Zigor Aizpuruaren lekukoa.

Auzo alkateaz gain, lau juntakide dagozkio legez Itziarko Auzo Udalarari. Jarraibide orokorren arabera horiek Debako hautetsontziaren emaitzekiko hautatzekoak badira ere, batzarrean izendatuko dituzte, alderdi politikoekin hala adostuta, parte-

| M26<br>ITZIARKO HAUTES BARRUTIKO EMAITZAK<br>Errolda: 791   |   |
|---|---|
| <b>EUROPA</b><br>Bozkek: 554 (%70,0)<br>EH Bilidu: 317<br>EAJ: 171<br>U. Podemos: 24<br>PSE-EE: 18<br>PACMA: 4<br>PP: 2<br>JxCat: 2<br>Zuriak: 6<br>Baliogabeak: 10 | <b>GIPUZKOA</b><br>Bozkek: 558 (%70,5)<br>EH Bilidu: 323<br>EAJ: 192<br>E. Podemos: 20<br>PSE-EE: 8<br>PP: 2<br>Zuriak: 4<br>Baliogabeak: 9 |
| <b>DEBAKO UDALA</b><br>Bozkek: 557 (%70,4)<br>EH Bilidu: 398<br>EAJ: 118<br>Debarren Ahotsa: 15<br>PSE-EE: 12<br>Zuriak: 10<br>Baliogabeak: 4                       | <b>ITZIARKO AUZO UDALEKO ALKATEGAIA</b><br>Bozkek: 548 (%69,3)<br>Denon Herria: 482<br>Zuriak: 55<br>Baliogabeak: 11                        |



hartzeari bidea emanez.

“Hala ere, Itziarko Auzo Udalaren muina gobernantza eta antolaketa irekia izanik, Talde Eragile anitzak kudeatuko du erakundea, azken lau urteotan bezala, auzo, sektore eta ikuskera ezberdinez osatutako multzoan”, azaldu dute Auzo Udaleko kideek. Datozen asteetan egingo da lau juntakideak eta auzo alkatea barne dituen lantalde berrituaren aurkezpen ekitaldia.

DENON HERRIA

2015 urte hasieran eratu ondoren, bere bigarren hauteskundeak izan ditu iragan maiatzean Itziarko Auzo Udalak, horrela lehenengo legealdia gaindituz.

Ez dira urte samurrak izan eta, hasi berriak izan ohi dituen berezko zailtasunez gain, hainbat kontrakotasuni aurre egin behar izan dio. Besteak beste, helegitea gainean zuela jarri zen martxan entitate txikia, eta auzitegi nagusiak arrazoia eman zion. Hortik aurrera, urteroko aurrekontuak bihurtu dira gatazka iturri, foru dekretuaren interpretazio

interesatuak medio.

Eguneroko jardunak, ordea, urak bere bidera eraman ditu; eta egindako lanari esker argi geratu da zein baliagarria den auzo udal eredu. Horren lekuko da Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta bestelako instituzioekin abiatutako elkarlanak dakarren bermea.

Arantza Egaña Aldalur izango dugu auzo alkate berria datozen lau urteetan, Itziarko Auzo Udalak hasieratik aldarrikatutako aniztasuna eta jendarte izaera irudikatuz. Eztabaida antzuak alde batera laga eta gizarte garapena oinarritzat hartzea da helburua, nortasun juridiko-

ak ematen dizkion tresnak erabiliz horretarako. Era berean, ezinbestekoa da lau urte hauetan hasitako lanak aurrera ateratzea, hala nola baserri bideak konpontzea, zerbitzu sozialak hobetzea, bertatik bertarako kultura eta aisialdi eskaintza sendotzea, partaidetza prozesuak bultzatzea edota eskola propioaren proiektua bideratzea. Etorkizuneko erronkei aurre egiteko, kudeaketa hobetzeaz gain nahitaezkoa da Itziarko Auzo Udalarari dagozkion baliabideak desblokeatzea eta Debako Udalaren baitako harreman zein lankidetzak normaltasunez garatzea, guztion onerako.

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Baliotaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**Taxi Alain Deba**

LIZ.-ZK.: 3

WiFi

[www.alain.taxideba.eus](http://www.alain.taxideba.eus)

636 135 008  
alain@taxideba.eus





## “Hurrekin urteotan sortu den harremanak egiten ditu ezberdin Kolorez Blai euskal udalekuak”

**Uztailaren 1ean abiatuko dira Kolorez Blai euskal udalekuak. 6-12 urte bitarteko 208 umek eman dute izena aurten-go delaldian, eta hamabost laguneko lantaldea -14 begirale eta koordinatzaile bat- arituko da guztia bideratzen.**

**2012an sortu zen Kolore Anitz Aisialdi Taldea, Zuhatza**

**Euskara Elkartearen baitan, eta zazpigarren urtea du aurtuen euskal udalekuak antolatzen. Egitasmoaren nondik norakoen berri izan nahian, taldeko kide diren Naia Orbegozo, Jon Amutxastegi eta Miren Berasalucerekin bildu gara oraingoan.**

**Badator Kolorez Blai euskal udalekuen zazpigarren edizioa. Dena prest?**

Bai, apirilean hasi ginen prestaketa lanekin eta jadanik prest dugu guztia.

**Formakuntza saioak egin dituzue udalekuei ekin aurretik?**

Bai, 15 orduko formakuntza jaso dugu taldekideok; euskal kanta eta jolasak, inklusibitatea eta euskara bultzatzeko teknika ezberdinak landu ditugu.

**Zer nolako ekimenak egingo dituzue aurtuen?**

Urtero bezala, berrikuntzak sartu ditugu, baina betiko esentzia galdu gabe. Betiko jolasak ahaztu gabe, jolas eta kanta berriei ondo pasatuko dugu.

**Berrikuntzak aipatu dituzue... egitarauari buruz ari zarete?**

Aurtengo udalekuak gai baten inguruan antolatu ditugu, baina zein den jakiteko uztaileira arte itxaron

beharko duzue... Sorpresa!

**Koordinatzaile aldaketa izan da aurtuen, ezta?**

Bai, aurtuen koordinatzaile berria izango dugu, Miren Berasaluce. Urteetan zehar koordinazio lanetan ibili den Emiliren lekukoa hartuko du. Elkarrizketa hau aprobetxatuta, gure eskerrik beroena Emiri!! Eta besarkada potolo bat, Kolore Anitzeko kideen izenean!

**Herrian udaleku eta jarduera eskaintza zabala dago udan, haur eta gazteei zuzenduta. Zerk ezberdintzen ditu udaleku hauek besteetatik?**

Euskal udalekuak izateaz gain, uste dugu hurrekin urteetan zehar sortu izan den harremanak egiten dituela ezberdin udaleku hauek. Udaleku gazteak, herrikoiak eta euskaldunak dira.

**Zer eskaintzen diete hurrei Kolorez Blai udalekuek?**

Hamar egunez euskaraz ongi pasatzeko aukera eskaintzen diegu. Horrez gain, lagun berriak egin eta esperientzia aparta bizitzeko aukera ere izango dute.

**Eta zer ematen dizuete begiraleoi?**

Guk asko gozatzen dugu hurrekin eta taldean dagoen giro onak ere asko lagun-tzen du. Gainera, haurrak ongi pasatzen ikustea begiraleontzat sekulako saria da. Azken finean, udalekuena esperientzia paregabea da. Begirale taldea aldatzen joaten den arren, ilusioak bizirik jarraitzen du.

**Kolore Anitzeko kideak zarete hirurak. Udalekuak antolatzeaz gain, aisialdi taldeak beste hainbat jarduera ere egiten ditu urte osoan, ezta?**

Bai, udalekuez gain, urtean zehar hainbat ekintza antolatu ditugu, Kolore Anitz Eguna, adibidez. Eta hurrengo urtera begira ekintza gehiago burutu nahiko genituzke, azken finean, neguan dagoen aisialdi eskaintza oso murrizta da eta.

**BADATOZ KOLOREZ BLAI UDALEKUAK**  
**GURASOENTZAKO BILERA:**  
**EKAINAREN 28AN (OSTIRALA), 19:00ETAN**  
**UDALETXEKO ARETO NAGUSIAN**  
 INFORMAZIO GEHIAGORAKO: [koloreanitz@gmail.com](mailto:koloreanitz@gmail.com) 632043322

**EKAINAK 28, OSTIRALA**

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko mobilizazioa, plazan.  
 -21:30. **San Pedro bezpera.** Zahagi erretzea eta dantzak, plaza zaharrean.  
 -22:30. **Bertsolaritza: Bertso saio literarioa,** plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

**EKAINAK 29, LARUNBATA**

-20:00. **Kontzertua (gitarra klasiko),** Santa Maria elizan. Antolatzailea: Arbil elkarte eta Lahar Elkargo Enpresa.  
 -22:00. **Mendi ibilaldia gauetz,** Itziarko plazatik abiatuta (hiru bat orduko ibilaldia egingo dute).

**EKAINAK 30, IGANDEA**

-**Palan ibiltzeko ate irekiak,** Aldats pilotalekuan. 10:30ean: 12-16 urte bitartekoentzat/11:30ean: 16 urtetik gorako neskontzat.

**UZTAILAK 1, ASTELEHENA**

-17:30. **Bisita gidatua: Debatik Zumaiara itsasontziz.** Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**UZTAILAK 5, OSTIRALA**

-23:00. **Jazz Kontzertua:** Fredi Pelaez Trio, Itziarko Burugorri ostatuan.  
 -22:00. **Antzerkia: "Jokoz kanpo",** plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

**UZTAILAK 6, LARUNBATA**

-16:30. **Bisita gidatua: Gotikoaren altxorra,** Deban (Santa Maria eliza ezagutuz).  
 -20:00. **Elkartasun kontzertua:** Aitzuri Abesbatza eta Durangoko Orfeoia, Sierra Leonan Ebolaren birusak kutsatutako umezurtzen alde; Debako elizan. Sarrerak salgai Turismo bulegoan edo kontzertuan bertan, 10 euroren truke.

**UZTAILAK 7, IGANDEA**

-11:30. **Debako XII. Itxasmila igeriketa zeharkaldia,** hondartzan. Izen-emateak: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com).

**UZTAILAK 12, OSTIRALA**

-12:30. **Bisita gidatua: Debatik Zumaiara itsasontziz.** Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).  
 -22:00. **Begiradak 2019.** Herriko irudigile, dantzari, bertsolari eta idazleen arteko elkarlanetik sortutako ekitaldia, plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

**UZTAILAK 14, IGANDEA**

-17:30. **Bisita gidatua: Debatik Zumaiara itsasontziz.** Informazioa: [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus).

**UZTAILAK 18, OSTEGUNA**

-19:00. **Euskal Jaia iragartzeko kartel lehiaketari dagokion erakusketa eta herri bozketa,** plaza zaharrean (Zuhatzaren ekimenez).  
 -20:00. **Hitzaldia: "Trabajadoriak"** (zigor destakamenduak Gipuzkoan), Itziarko Burugorri ostatuan. Hizlaria: Aiala Oronoz Mitxelena.

**UZTAILAK 19, OSTIRALA**

-22:00. **Kontzertua. "Manez eta kobreak",** plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

**UZTAILAK 20, LARUNBATA**

-19:00. **Udako kontzertua: Zestoako musika banda,** Itziarko santutegiaren atzeko parkean.

**UZTAILAK 23, ASTEARTEA**

-19:00. **"Arima diskofesta",** zumardian. Zuhatzak antolatutako haurrentzako ekimena.

**UZTAILAK 24, ASTEAZKENA**

-22:00. **Dantzaldia: "Bilaka: neguko errituak",** plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

**Ikastaroak**

-**Robotika gazteentzat,** Deban. 2004 eta 2011 artean jaiotako haurrei eskainitako ikastaroa izango da, uztailaren 1etik 5era. Izen-ematea online egin behar da, ekainaren 30a baino lehen: <http://bit.ly/2019gazterobotika> (30 euro).

-**Raku tailerra (zeramika tradizionalen ontziak egosteko teknika),** Endoian. Irakaslea: Txiki Agirre Keixeta (Arroa, 1963). Hiru eguneko ikastaroa izango da: ekainak 27, uztailak 4 eta uztailak 13. Plaza mugatuak. Izen-ematea: 645714633 (Arantza).

-**Udako kirol kanpaina,** Deban. Udaleko Kirol Sailak Uda Kirola kanpaina abiatu du: surf, bodyboard, xakea, stand up paddle, skate... Informazioa: 943 19 24 52 / [www.deba.eus](http://www.deba.eus).

**Kartel lehiaketa**

-Irailaren 28an ospatuko dugun **aro berriko XXII. Euskal Jairako kartel lehiaketa** abiatu du Zuhatzak. Lanak aurkezteko azken eguna: uztailak 5, ostirala (13:00). Informazio gehiagorako, ikus aldizkari honen kontrazala edo deitu euskara elkartera (943 19 13 83).

**Udako ordutegia udal liburutegian**

-Ekainaren 25etik aurrera, Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegia izango du.  
 \*Liburutegi orokorra: asteleheneretik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur/gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.



**ZAINTZAKO BOTIKA**  
 Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **uztailak 1, 2, 3, 4, 19, 20, 21.**

Burgoa Zuazo:  
**uztailak 5, 6, 7, 15, 16, 17, 18.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:  
 ZALDUEGI: ekainak 29 / uztailak 20  
 BURGOA ZUAZO: uztailak 6 eta 13  
**9:30 - 13:00**



**Uzuri**  
 optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN**



Ostolaza, 7  
 20820 DEBA  
 Tel: 943192192



# Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



MASAJISTA

Tel.: 677 557 615

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA

DEBA

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!



943 191 383

berriketan@zuhatza.com



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**SO URTE**  
**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA



ITXAS GAIN  
Taberna  
ITXAS GAIN

*Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

**Azoka**

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**k**  
**kutxabank**

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com



Hazitik  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: hazitik@gmail.com

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**LIGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



## EUSKAL JAIA 2019 IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETA

-Lanak aurkezteko azken eguna: uztailak 5, ostirala (13:00)

-“Euskal Jaia 2019 Deba” esaldia agertu beharko da, soilik (euskara hutsean)

-Teknika librea izango da eta kartelak euskarri fisikoan nahiz digitalean aurkez daitezke (Zuhatza elkartearen bulegoan, edo [zuhatza2@gmail.com](mailto:zuhatza2@gmail.com)-era bidalita)

-Lanen neurria A2 tamainan kalitatez argitaratzeko modukoa izan behar da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du

-Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake

-Obrak originalak izango dira

-Kartel irabazlea herritarrek hautatuko dute. Uztailaren 18an egingo da erakusketa, 19:00etan, plaza zaharrean

-Irabazleak 300 euroko saria jasoko du

-Kartel irabazlea Euskal Jaia iragartzeko erabiliko da eta Zuhatzaren esku geratuko da (lana inprimatu, argitaratu eta haren zabalkundea egiteko eskubidearekin)

-Informazio gehiagorako: 943 19 13 83

*Zuhatza*  
EUSKARA OIHARREN ELKARTEA DEBA

## UDARA KULTURAZ BLAI !



### "ARIMA DISKOFESTA"

Uztailaren 23an (asteartea), 19:00etan

Kulturaz blai,  
euskaraz blai,  
haur eta gazte  
hurbildu alai !!

\*\*Ikuskizuna zumardian egingo da. Euria egingo balu, Luzaroko pilotaleku txikian.

*Zuhatza*  
EUSKARA OIHARREN ELKARTEA DEBA